


Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioa

2019ko memoria-txostena

2019ko abendua





1. Sarrera	4
2. Helburuak	6
3. 2019ko planifikazioa	7
4. 2019ko jarduera	8
4.1. Plenarioa	8
4.2. Talde Eragilea	9
4.3. Bilgune teknikoa	9
4.4. Lantaldeak	11
4.4.1. Erabakimena ahalbidetzen duten prozesuak	11
4.4.2. Generoa eta Parte-hartzea	13
4.4.3. Herri txikiak	15
4.5. Trebakuntza	15
4.5.1. Udal ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza	16
4.5.2. Bitartekaritza trebakuntza	19
4.6. Mintegia	21
4.7. Komunikazio- estrategia	22
4.7.1. Barne-komunikazioa	22
4.7.1.1. Partekatu On-line plataforma	22
4.7.1.2. Erakunde arteko Espazioko posta elektronikoa	23
4.7.2. Kanpo-komunikazioa	23
4.7.2.1. Bideoa	23
4.7.2.2. Udaletara bisitak	23
5. Ebaluazioa	25
5.1. Adierazleak	25
5.2. Balorazio orokorra eta aurrera begirakoak	27

Herritarren Partaidetzaren alorrean
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak
gidatzen duen Gipuzkoako Lurralde
Historikoko Herritarren Partaidetzako
Erakunde Arteko Espazioaren 2019ko
jardueraren memoria jaso du Elhuyar
Aholkularitzak dokumentu honetan.



1. Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzarako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamenduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioa sortu zuen 2017ko urtarrilean.

Erakundeen arteko Espazioaren **xede nagusia** herritarren partaidetzaren garapenean lan egitea da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta toki entitateen zeharkako jarduketa esparrutzat hartuta.

Herritarren Partaidetzako **Erakunde arteko Espazioaren helburuak** hurrengoak izanik:

- **Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea** Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen **esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea**, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- **Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea** Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren **diru-laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna** izatea.
- **Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea**, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Erakunde arteko Espazioaren hirugarren garapen-urtea izan da 2019a eta aurreko urteetan jorratutako norabidean urrats berriak ematen jarraitu du, Espazioa herritarren partaidetzarako udal-teknikari eta -ordezkarien erreferentziazko lan-sarea bihurtzeko lanean.



1. Sarrera

Erakunde arteko Espazioaren egitura organikoa honakoa da:

Foro Teknikoa: deliberazio teknikorako eta proposamenak egiteko egitura da; eztabaidarako, neurriak eratzeko eta proiektuak zein araudiak egiteko espazioa. Osaerari dagokionez, malgua duen arren, gutxienez ondorengoak osatuko dute:

- Koordinazioaren arduradunak, foru- edo udal-zuzendari/teknikariak
- Idazkariak: foru- edo udal-funtzionarioak
- Udaleko zuzendari edo teknikariak
- GFAko Herritarren Partaidetzarako lantaldeak
- Udalerrri txikien parte hartzea bermatu beharko zaie.

Plenarioa: urteko planifikazioa onartu eta ontzat eman behar du. Bere funtzio nagusiak, besteak beste, hauek dira: dirulaguntzen oinarritzko ildoak ezagutu eta horien berri ematea; Espaziotik sustatu behar diren jarduera eta prestazioen ildo nagusiak zehaztea; Exekutibotik informazio guztia jasotzea; GFari proposatzea Espazioari esleitu beharreko aurrekontua; Espazioaren antolamenduaren eta barne funtzionamenduaren araudia onartzea; jardueren urteko memoria onartzea; Espazio Exekutiboko kideak izendatzea; eta Foro teknikoko kideak izendatzea.

Plenarioko kide izango dira: GFAko Herritarren Parte Hartzerako ardura duen Departamentu burua, Lehendakariak; GFAko izendatutako funtzionarioa, idazkari moduan; GFAko Herritarren Parte Hartzerako zuzendaria eta GFAko beste kide bat; eta Lurralde Historikoko Udalerrietako Alkatea edo Herritarren Partaidetzaren Zinegotzi arduradunak (10.000 biztanletik gorako Udaletan bina ordezkari).

Exekutiboa: Foro teknikoak hala proposatuta, era guztietako akordioak egitea du bere egitekoa, Foru Dekretuko 3.2. artikuluan zehaztutako eskuduntza guztiekin batera.

Osaerari dagokionez, exekutiboko kide dira: GFAko Departamentu burua; GFAko izendatutako funtzionarioa; GFAko Herritarren Parte Hartzerako zuzendaria; eta GFAko beste kide bat; 6 alkate edo arlo honetan eskumena duten zinegotziak (bina tamainako: bi 10.000 biztanletik gorakoak; bi 2.000-10.000 biztanle artekoak, eta bi 2.000tik beherakoak).



2. Helburuak

2019an Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa dinamizatu eta sistematizatzeko, honako helburuak ezarri genituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzako ordezkarien oniritziarekin:

2.1. Helburu nagusia

Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioak sortutako Foro Teknikoa eta Plenoa dinamizatzea eta egindako lana sistematizatzea, udalerrietan herritarren partaidetza sustatzeko lan-prozesuak hobetu eta praktika eredugarriak sortzeko.

2.2. Helburu zehatzak

- Urteko planifikazioa egitea eta Plenarioan aurkeztea, honek 2019ko planifikazioa onartzeko.
- Urteko planifikazioa garatzea, aurreikusitako lantaldeak, mintegiak eta trebakuntza gauzatuz, eta on-line foroa kudeatuz.
- Urteko planifikazioari etengabeko jarraipena egitea, eta egitasmoaren bukaeran, urteko jardueraren ebaluazioa egitea.

2.3. Zeharkako helburuak

- Gipuzkoako udalerrietako Herritarren Partaidetzako teknikarien edota ordezkarien sarea sendotzea.
- Iritziak, kezkak eta esperientziak trukatzuz, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, era berean, herritarren partaidetzarako metodologia, tresna eta teknikak eskuratuz eta lan-prozesuetan nahiz bitartekoetan eraginkortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegia txertatuz.
- Udalerriek Herritarren Partaidetza sustatzeko plangintzetara bideratutako esfortzu eta baliabideak optimizatzea, bikoizketak ekidinez eta guztiontzako lana eraginkorrago bihurtuz.
- Udalerriek Herritarren Partaidetza sustatzeko egiten dituzten ekintzak Gipuzkoak lurralde gisa dituen estrategien markoan kokatzea modu kontziente batez.



3. 2019ko planifikazioa

Helburu horiei erantzun asmoz, urte hasieran 2019ko planifikazioa landu eta zehaztu zen Bilgune Teknikoan (otsailak 19). Planifikazioa lantzeko kontuan hartu zen Erakunde arteko Espazioaren 2018ko ebaluazioan jasotakoak, ondo egindakoak zein hobetzekoak. Bilgune Teknikoak zehaztutako 2019ko planifikazioa Exekutiboan aurkeztu eta ontzat eman ondoren (otsailak 28), Plenarioan aurkeztu zen (martxoak 7). Plenarioan jasotako ekarpenak kontuan hartuz, 2019ko behin betiko planifikazioa onartu zen.

Hauxe da 2019 urterako adostutako planifikazioa.





4. 2019ko jarduera

4.1 PLENARIOA

Martxoaren 7an ospatu zen Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren plenoa eta guztira 8 udalerritako ordezkari hartu zuten parte, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 4 ordezkari eta Elhuyar Aholkularitzako 2 partaidetza-teknikari ere. Plenoaren batz besteko balorazio orokorra 8,25 izan zen.



Martxoaren 7ko plenoa

2018ko Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren memoria-txostena aurkeztu zen bertan, baita urtearen balorazioa ere. Era berean, urtean ondo egindakoak, hobetzeko alderdiak, mantendu beharrekoak eta guneak ematen diguna partekatu eta elikatu zen.

Jarraian eta hitz egindakoak aintzat hartuta, 2019 urterako planifikazioa eta lan-egutegia aurkeztu ziren. Aurkeztutako planifikazioaren gaineko ekarpenak jaso ziren jarraian, 2019 urterako erronkak identifikatuz, hala nola, eta legegintzaldi berria tarteko, Erakunde arteko Espaziora udal gehiago erakartzea, horretarako komunikazio-estrategia bat garatzeko garrantzia azpimarratuz eta trebakuntza-eskaintza doitzeko beharra azalduz. Testuinguru honetan, 2019ko plangintza doitu eta onartu zen.



4. 2019ko jarduera

Bi puntu hauez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak beste hainbat puntu aurkeztu zituen, horien artean: aurrekontu irekiak, on-line plataforma, OGP (Open Government Partnership) barneko jarduna eta beste.

4.2 TALDE ERAGILEA

Adostutako 2019ko plangintza koordinatu eta bideratzeko Elhuyar Aholkularitzako teknikariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak **11 aldiz** bildu dira 2019 urtean zehar. Bilerez gain, etengabekoa izan da posta bidezko eta telefono bidezko harremana. Talde Eragilearen egiteko nagusiak prozesua abiatu eta ondo bideratzeko baldintza egokiak prestatu eta sortzea izan dira, baita etengabeko jarraipena burutzea ere.

4.3 BILGUNE TEKNIKOA

Bilgune Teknikoa Gipuzkoako Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren planifikaziorako gune nagusia da, baita Gipuzkoako Herritarren Partaidetzako teknikarien eta herri txikietako ordezkarien arteko elkargunea ere.

Hiru bilera zeuden aurreikusita, otsailean, ekainean eta abenduan; eta horietatik bi burutu dira.

- **Lehen bilera (otsailak 19):** Lehen bileraren helburu nagusia 2019ko planifikazioa zehaztea izan zen, eta aurreko urteko balorazio eta esperientziaz abiatuz, lanerako esparru eta edukiak zehaztu ziren. Edukien lanketari dagokionez, batez ere, bi eremuetan jarri genuen arreta:
 - a) Mintegi- eta prestakuntza-saioen edukiak zehaztea, eta hauen parte-hartzaileak zehaztea
 - b) Legegintzaldi aldaketarekin, politikari berriengana iristeko partaidetzaren inguruko trebakuntza-proposamena zehaztea, eta Espaziora udal gehiago erakartzeko komunikazio-estrategia lantzea.



4. 2019ko jarduera



- **Bigarren bilera (ekainak 12):** Jarraipen bilera izan zen, non, lantaldeen jardunaren, trebakuntza-saioen, komunikazio-estrategiaren, ... berri eman zen, aurrera begirako ekarpenak jasoz.





- **Hirugarren bilera (abenduak 17):** Urteko jarduna ebaluatu eta aurrera begirakoa lantzeko abenduko azken bilera bertan behera gelditu da, asistentzia baxuagatik. Hala ere, udaletako partaidetza teknikariei eta herri txikietako ordezkariari urteko memoria laburra bidali zaie eta urteko balorazioa idatziz egiteko eskatu zaie e-mail bidez.

Bilgune Teknikoko bileretara 11 udalerrri hurbildu dira, Gipuzkoako udalen % 12a, eta bi lansaioen batz besteko balorazio orokorra 7,7koa izan da.

4.4. LANTALDEAK

Aurreikusi bezala, eta 2018ko jardunari jarraipena emanez, hiru lantalde izan dira 2019. urtean ere, bakoitzak bere ibilbide propioa izan duelarik.

4.4.1 Erabakimena ahalbidetzen duten prozesuak

Erabakimena ahalbidetzen duten prozesuak lantaldea

lehendabizikoz martxoan batu zen eta bertan aurreko urtean zehar landutakoetatik abiatuta, 2019ko helburuak, edukiak eta erantzun beharreko galderak jaso ziren, lanerako eskema proposamen bat osatuaz. Lau saiotako planifikazioa landu zen, ekaina eta uztaila bitartean burutzekoa.

Lehen saioan Demokrazia zuzenaren

definizioa eta honen markoaren lanketa burutu ziren, eta bigarren saioan jarraipena izan zuen lanketa honek, komuneko hainbat baieztapenetara iritsiaz. Hirugarren saioan, berriz, kontsulta bat egiteko baldintzak, urratsak eta tresnak lantzea zen asmoa, baina aurrez egindako ariketa bat izanik, lansaioa

1. SAIOA (ekainak 5)

- Demokrazia Zuzenaren definizioak
- Demokrazia Zuzenaren markoaren lanketa: noiz, nola, zer arazori erantzuna emateko

2. SAIOA (ekainak 19)

- Demokrazia Zuzena gatazken konponketarako: aintzat hartu beharreko alderdiak, zer arazo konpontzeko

3. SAIOA (uztailak 3)

- Lurralde-eskala aproposa
- Subjektuak

4. SAIOA (uztailak 17)

- Lanketa ixtea, fintzea, borobiltzea



egokitu eta aurrez landutakoaren gainean jardun zen, kontsulten inguruko galdera berri eta gomendioak jasoaz. Hiru saioetan landutakoa oinarri, azken saioan demokrazia zuzeneko prozesu bat diseinatzeko galdera-zerrenda landu zen, prozesu desberdinen garapen eta esperientziaren bidez elikatu beharreko galdera-zerrenda bizia. Azken bilera hau, uztailean egitekoa zen arren, hainbat arrazoi tarteko urrian burutu zen.



Erabakimena ahalbidetzen duten prozesuak lantaldeko 2. lansaioa

Erabakimena ahalbidetzen duten prozesuak lantaldean **Donostia, Errenteria, Oñati, Tolosa eta Zarauzko** udalerriek hartu dute parte eta **lan saioetarako asistentzia % 84koa** izan da. Lantaldeaz eta bertan landutakoaz egiten den balorazioa positiboa da, urte hasieran planteatutako gehiengoak landu delarik.

Egindako lanaren emaitza **“Demokrazia zuzeneko prozesuetan erabiltzeko gomendioak. Checklist”** dokumentua izan da. Dokumentu honek demokrazia zuzeneko prozesu bat diseinatzeko kontuan hartu beharreko gomendioen tresna praktikoa izan nahi du eta partaidetzako teknikarien lana errazteko eta sistematizatzeko bokazioarekin egina dago.

Aurrera begira, oraingoz lantalde honen jarduna etetea erabaki da. Hobetsi baita arlo honetan esperientziak eta praktikak izatea dela interesgarria, eta praktika horiek izan ahala, horiek konpartitu eta ikasteko espazioak izatea landu beharko litzatekeela, hauetatik ikaspenak ateratzeko eta trebatzen segitzeko.



4.4.2 Generoa eta parte-hartzea

Generoa eta parte hartzea lantaldea lau aldiz bildu da, apirila eta iraila bitartean. Astigarraga, Donostia, Tolosa, Oñati eta Zarautz udalerrietako teknikariek hartu dute parte eta lansaiotarako **asistentzia % 87,50ekoa** izan da. Aipatzekoa da lantaldera kide berri bat batu dela aurtengo urtean, zehazki, Astigarragako Udala (partaidetza eta berdintasunaren arloetako teknikaria). Horrez gain, aurten udalerrietako berdintasun-teknikari batzuek ere parte hartu dute lantaldean, eta Donostia, Tolosa eta Oñatiko teknikariak bertaratu dira bileretara. Lantalde hau dinamizatzeko orduan, Elhuyar Aholkularitzak kontuan hartu du partaidetza alorreko eta berdintasun alorreko teknikarien arteko elkarlana, eta alor bakoitzeko teknikari bana egon dira taldearen gidaritza-lanetan.



Generoa eta parte-hartzea lantaldeko 4. lansaiola

Urteko lehen saioan (apirilak 10), 2018an landutakoa gogora ekarriz eta guztien behar eta interesei erantzunez, partaidetza-prozesuetan genero ikuspegia modu sistemiko eta planifikatuan txertatzeko tresna bat sortzea erabaki zen; baita mintegi bat antolatzea ere, hainbat gai lantzeko helburuarekin, besteak beste: nola txertatu partaidetza-prozesuetan ikuspegi feminista, partaidetza-prozesuen inguruko gogoeta egitea, erakunde publikoek zeharlerrotasunez lan egiteko dituzten zailtasunak eta aukerak...



4. 2019ko jarduera

Bigarren saioan (maiatzak 31), partaidetza-prozesuetan genero ikuspegia txertatzeko tresnaren (check lista) edo galdera-zerrendaren lehen proposamenaren gainean jardun genuen lanean, Elhuyar Aholkularitzak landutako dokumentu zirriborroa aztertuz eta ekarpenak eginez.

Hirugarren lansaioan (uztailak 18), landutako dokumentua praktikan jarri zen; hau da, tresna praktikoan (check listean) jasotako galdera-zerrendaren baliagarritasuna azertuaz eta genero-ikuspegiari zentralitatea emanez, partaidetza alorreko bi esperientzia praktiko azertu genituen. Hirugarren saio honetan, udalerrietako berdintasun-teknikariekin jardun genuen elkarlanean, partaidetza eta berdintasun alorreko ikuspegiak uztartuz.

Laugarren saioan (irailak 26), ildo honi eman zitzaion segida, partaidetza alorreko bi esperientzien ondorioetatik hainbat ikaspen eta erronka identifikatuz. Laugarren saio honetan ere parte hartu zuten udalerrietako berdintasun-teknikariek. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun alorreko teknikariek tresna praktikoari (check listari) egindako ekarpenak azertu genituen eta horiek dokumentuan txertatu ondoren, itxiztat eman genuen genero-ikuspegia modu sistematikoan txertatzeko dokumentuaren lanketa. Egindako lanaren emaitza da honako dokumentua: **“Genero-ikuspegidun partaidetza-prozesuak egiteko jarraibideak (tresna praktikoa)”** .

Lansaioez gain, lantaldearen urteko planifikazioan mintegi bat burutzea adostu zen, baina hainbat arrazoi tarteko mintegi hori atzeratzea erabaki da. Arrazoi nagusiena izan da, begiz jotako hizlariek (Mireia Espiau eta Jone Martinez de Palacios) ezin zutela proposatutako datetan etorri; horri gaineratu zaio, udazkeneko planifikazioa ere trebakuntza-ekimenekin nahiko bete zegoela (teknikarientzako bitartekaritza ikastaroa batetik, ordezkari politikoei zuzendutakoa bestetik). Ondorioz, datorren urtera atzeratzea planteatu zen taldean eta taldeak ondo baloratu zuen erabakia,

Egindako lanaren balorazioari dagokionez, lantaldearen jarduna oso positibo baloratu da. Alde batetik, hausnarketarako tartea eskaintzea garrantzizkotzat jo da, baita berdintasun-teknikariekin egindako elkarlana ere. Partaidetza alorreko prozesu errealen gainean lan egitea beharrezkoa ikusten da eta urte honetako emaitza izan den genero ikuspegidun partaidetza-prozesuak egiteko jarraibideen dokumentua ere baliagarritzat jo da, prozesu bat antolatzeke orduan, bere fase ezberdinetan kontuan hartu beharreko alderdiak jasotzen dituen tresna da eta udal bakoitzak zein alderdietan arreta jarri baloratzeko aukera ematen duena.

Urte osoko **balorazio orokorraren batez bestekoa 8,3ko** da.



Aurrera begira, eduki teorikoetan gehiago sakontzeko nahia adierazi dute taldekideek (unibertsitateko jakintza zein eremu praktikoko eragileen jakintza geureganatzea), partaidetza prozesuetan dihardugunok elkarlanean jarriz eta elkarrekin ikasteko hitzaldi-zikloak antolatuz. Honekin lotuta, berdintasuna eta partaidetza alorren arteko elkarriketa sustatu beharra azpimarratu da, bi eremuen arteko elkarlana gauzatu ahal izateko. Era berean, hemendik aurrera sortutako tresna praktikoa (genero ikuspegidun partaidetza-prozesuak egiteko jarraibideak) praktikan jartzea tokatzen dela aipatu da, eta esperientzia horietan oinarrituta, irizpide edo alderdi horiek aplikatzeko adibideak edo praktika onak elikatzea. Horiek partekatu eta tresna praktikoa baloratzeko tarte bat hartu beharra ere azpimarratu da. Hori horrela, sortutako tresnaren gainean lan egiten jarraitzea gomendagarri ikusten da, berau eguneratua egon dadin.

4.4.3 Herri txikiak


Herri txikietako lantaldea apirilean aktibatzea zen asmoa baina udal-hauteskundeak tarteko, legegintzaldi berriarekin batera, irailtik aurrera martxan jartzea adostu zen. Irailean, aldiz, erabaki zen ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntzak bi adar izatea, bata herri handi/ertainei zuzendutako saioak, eta bestea, herri txikiei zuzendutako saioak. Kontuan hartuta udal ordezkarien agenda estuak, herri txikietako ordezkariak galdetu zitzaizkien ea zer iruditzen zitzaizkien herri txikietako lantaldearen aurtengo saioak, trebakuntza-saio horientatik ordezkatzeari. Guztiek egoki ikusi zuten eta ondorioz, lantalde honen aurtengo jarduna trebakuntza-saio horietara zuzendu da.

4.5. TREBAKUNTZA

Trebakuntza-eskaintzaren helburu nagusia herritarren partaidetza sustatzeko politikak garatzeko behar diren gaitasun profesionalak eskuratzea da, eta horretarako, beharrezkoa da teknikariak zein politikariak prestatu eta trebatzea.

2019ko planifikazioan jaso bezala, aurtengo trebakuntzak bi ekimen nagusi izan ditu:

- Batetik, udal ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza.
- Bestetik, udaletako partaidetza teknikariei zuzendutako trebakuntza, bitartekaritzarekin lotua.





4.5.1. Udal ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza

Ildo honetan eta udal hauteskundeak tarteko, 2019ko trebakuntza-eskaintzaren oinarria hirugarren lauhilabetekoan aurrera eramandako ordezkari politiko berriei zuzendutako trebakuntza izan da.

Trebakuntza-prozesuaren proposamena hurrengoia izan da: alde batetik, eta lehen saio gisa, herritarren partaidetzari buruzko hasiera mintegia; bestetik, eta herri txikietako lantaldearen eskakizunari erantzunez, bi mailatan berezitutako trebakuntza-saioak: herri ertain eta handietako ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza-saioak, eta bestetik, herri txikietako ordezkari politikoei bideratutako saioak.



Aipatu behar da, ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza izan arren, udaletako partaidetza-teknikariak ere gonbidatuak izan direla saioetara, teknikari eta politikarien arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu nahian.

Hasierako mintegia

Mintegiaren lan ildo nagusia herri-partaidetza izan zen eta horretarako, Quim Brugué, herritarren partaidetzan aditua, izan zen hizlari. Ondoren, herri-partaidetza sustatzen duten Gipuzkoako 5 esperientzia praktiko aurkeztu ziren eta, mintegia bukatzeko, gogoetarako tartea zabaldu genuen, galdera eta erantzunentzako tartea hartuz.



Lehen saio honen helburua herri partaidetzaren kokapen orokor bat burutzea izan zen, udaletako zein Gipuzkoako markoan: partaidetzaz zer ulertzen dugun eta nola egiten dugun, zergatik eta zertarako egiten dugun, erronkak zeintzuk diren...



Herri-partaidetzari buruzko mintegia

Guztira, **37 udalerritako 44 hautetsi eta partaidetza-teknikarik** hartu zuten parte. 37 udalerririk horietatik **6 herri txikiak** izan ziren, eta **19 herri ertain eta handiak**. Ordezkariei dagokienez, **30 (% 68) emakumeak izan ziren eta 14 gizonak**. Bestalde, gutxi gorabehera, ditugun datuekin, esan dezakegu erdiak inguru hautetsiak izan zirela eta beste erdiak teknikariak. Amaitzeko lehen saio honen batez besteko **balorazioa 8,21koa** izan zen.

Hurrengo bi saioak, aurretik aipatu bezala, bi lantaldetan bereizirik ospatu ziren, herri handi/ertainak alde batetik, eta herri txikien ordezkariekin osatutakoak bestetik. Izan ere, herri ertain zein handien, eta herri txikien errealitateak ezberdinak baitira, baita errealitate horretatik eratorritako behar eta erronkak ere.

Herri handi eta ertainetako ordezkarik politikoei zuzendutako trebakuntza-saioak

Mintegian jorratutakoaren ildo beretik, trebakuntza-prozesuaren lehen saioan (azaroak 8) partaidetzaren nondik norakoak landu ziren eta kasu honetan, Gasteizko Udaleko Herri-partaidetza departamentuko zuzendari nagusia den Kotelok landu zuen gaia. Donostia eta Oñatiko esperientziak ere ekarri ziren mahai gainera, guztien artean partaidetzaren arrazoi eta motibazioak aztertuz. Elhuyarreko teknikaria lanketa eta gogoetak egiteko metodologia eta dinamika ezartzeaz arduratu zen.



4. 2019ko jarduera



Herri handi eta ertainetako ordezkari-politikoaren trebakuntzako 1. lansaioa

Bigarren lansaioan (abenduak 4) herri partaidetzako prozesuen planifikazio beharraz jardun genuen, oraingo honetan ere Kotelok izan zelarik azalpenen arduradun. Parte hartzeko mekanismo eta erremintak ere partekatu ziren, Donostia eta Oñatiko ereduak erakutsiz. Elhuyarreko teknikaria lanketa eta gogoetak egiteko metodologia eta dinamika ezartzeaz arduratu zen.

Guztira, **17 udalerritako ordezkari politiko eta partaidetza-teknikari** hurbildu ziren trebakuntza-prozesura. Batez besteko **balorazio orokorra 8,5koa** izan zen, gehiengoak azpimarratu zuen horrelako trebakuntza-prozesuen garrantzia, bai gaian sakondu eta eguneratzeko, baita elkar ezagutzarako ere.

Herri txikietako ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza-saioak

Herri txikietako ordezkariekin burututako lansaioek ere egitura antzekoa izan dute. Bi saio izan dira eta biak Kotelok bideratu ditu. Herri ertain eta handien saioekin alderatuta, ez da udalerrien esperientzia edo praktikarik konpartitu, denbora faltagatik.

Lehenengo saioa (urriak 30) Amezketan izan zen, eta bertan, Koteloren azalpenetatik abiatuta zer da herri-partaidetza? zergatik eta zertarako? galderei erantzunez egituratu zen saioa. Galdera horien inguruan bertaratu ziren ordezkarien hausnarketa bultzatu zen.

Bigarren saioa (azaroak 26), Mutiloan izan zen, eta, herri ertain eta handien saioan bezala, parte hartzeko mekanismo eta erremintak partekatu ziren. Saio honetan ere herri txikien errealitatea hartu zen lanketarako ardatz eta ikasketetarako oinarri bezala.



Herri txikietako ordezkari-politikoaren trebakuntzako 2. lansaila

11 udalerritako 15 ordezkari hurbildu ziren trebakuntza-saioterara eta egin zuten balorazioa oso positiboa izan zen, **8,4ko batez besteko balorazioa** eginez.

4.5.2. Bitartekaritza trebakuntza

2019ko trebakuntza-eskaintzaren barne, urteko lehen Bilgune Teknikoan landutakoaren haritik eta partaidetzako teknikarien trebakuntza beharrei erantzun asmoz, bitartekaritzari buruzko trebakuntza-prozesua aurrera eramatea adostu zen.

Bitartekaritzari buruzko trebakuntza-prozesua edo gatazken lantze etikoari buruzko ikastaroa 2019ko hirugarren lauhilekoan burutu da, Baketik erakundearen eskutik. Egun osoko bi lansaila izan dira eta gatazka-egoeretan lagunduko dituzten tresnak geureganatzea izan da helburu nagusia, komunikazioa eta bitartekaritzan jarriaz arreta.



4. 2019ko jarduera



Bitartekaritzako trebakuntzako saioetako bat.

Bi saioak azaroan izan dira, lehenengo 14an eta bigarrena 21ean. Hasieran aurreikusitako ordu kopuru guztia ez da posible izan ematea, partaide askok ikastaroaren bukaera ordua baino lehenago alde egin beharra izan dutelako. Hori horrela, bai lehenengo saioa eta baita bigarrena ere, motzagoak egin behar izan ziren.

Trebakuntza saioetan **7 udalerritako 12 ordezkari** hartu zuten parte.


Saioen balorazioari dagokionez, balorazio zatituak daudela esan dezakegu. Batetik bigarren eguneko saioaren bukaerakoan jaso zena dago, eta oro har nahiko balorazio ona izan zen. Hala ere, partaide guztiak ez zirenez geratu bukaera arte, ba, partziala dela esan genezake, Bestalde, Talde Eragilean egindako balorazioan, azpimarratzekoak hauek dira: batetik, baloratu zen, ikastaroaren edukiak partaidetzako teknikarien errealitatera ez zirela ondo egokitu eta nahiko eduki orokorrak landu zirela. Eta baita ere, aipatu zen bitartekaritza tresna zehatzak ez zirela landu. Beraz, Talde Eragileak egiten duen balorazioa, ez da hain positiboa. Bestalde, hobetzekoan artean baloratu zen partaideen konpromisoa. Izan ere, teknikariek eskatuta proposatu zen ikastaroa bi egunetan modu trinkoan egitea eta errealitatea izan zen teknikariek ez zutela posible izan ordu guztietan parte hartzea.



4.6. MINTEGIA

Mintegiak gogoeta-saio gisa definitzen dira, gai zehatz baten inguruan jarduteko lan-saioak.

2019ko planifikazioan jaso bezala, bi mintegi antolatzea aurreikusten zen: Visual Thinking metodologiari buruzko mintegia eta IZFEk garatu duen partaidetza digitala kudeatzeko On-line plataformari buruzko mintegia.



Visual Thinkingeko lan-saioan landutako hiztegi bisuala

Bi gaiak landu dira, eta horiek lantzeko Bilgune Teknikoa izan dugun egun bat probestu dugu, teknikarien joan etorriak saihesteko. Ekainaren 12ko Bilgune Teknikoan landu genuen partaidetza digitalaren gaia, tresna zertarako den eta zer eskaintzen duen azaldu zigun Sergio Gonzalezek, Aldundiko partaidetza-teknikariak. Bilgune Teknikoa bukatu ondoren, 2 orduko lan-saioa egin genuen Visual Thinking-ari buruzko saioa egiteko (Muxote Potolo baten eskutik). Mintegi honetatik sortu ziren partaidetzaren hiztegia eta infografia ezberdinak.



Aipatu, Generoa eta Parte-hartzea lantaldearen jardunaren barne, 2019rako mintegi baten antolaketan ere jardun dugula, nahiz eta gero, agenda zailtasunak medio ezin izan dugun garatu eta aurrez aipatu bezala, 2020 urterako uztea erabaki den.

4.7 KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA

Komunikazioari dagokionez, bi estrategia garatu dira a) proiektuan parte hartzen duten udalen arteko barne-komunikazioari lotutakoa eta b) kanpo-komunikazioari dagokiona, legegintzaldi berriaren hastapenetan, ordezkari politiko berriei zuzendutakoa.

4.7.1 Barne-komunikazioa

4.7.1.1. Partekatu On-line foroa:

Barne-komunikazioaren alorrean, kanal nagusia **Partekatu On-line foroa** izan da. Bertan bildu dira proiektuaren barne-komunikaziorako hainbat eduki. Partekatu foroaren barne, hurrengo atalak eta edukiak elikatu ditugu:

1. **Egutegia**, non foro teknikoko hitzorduak kontsulta daitezkeen.
2. **Dokumentuak atala**. Bertan foro teknikoko egituren lansaietako aktak eta landutako dokumentu eta euskarriak jasotzen dira. Azpimarratzekoa da dokumentuen artean, ohiko aktez gain, saioretako bideo-aktak egin ditugula eta baita trebakuntza-prozesuko saioretako kronika laburrak, zeintzuek harrera ona izan duten.
3. **Buletinak**. 2019. urtean guztira lau buletin bidali dira, hiru-lau hilabeteko epe tartean. Herritarren partaidetzari buruzko berriak, praktika onak eta artikulu interesgarriak jaso dira bertan, bai Gipuzkoako lurraldean, zein Gipuzkoatik kanpoko albisteak. Buletinaren egitura eta formatua berritua egin da eta harrera ona izan duela azpimarratu beharra dago.
4. **Elkarrizketak**. Erakunde Arteko Espazioan parte hartzen duten Asteasu, Bergara, Donostia, Errenteria eta Irungo udal-ordezkari edo partaidetza-teknikariei burututako bost elkarrizketa zabaldu dira. Bakoitzari hiru galdera orokor eta motzean erantzuteko beste hainbat galdera burutu zaizkie. Elkarrizketen bidez Gipuzkoako udalerrien aniztasuna jasotzen saiatu gara, eta horretarako herri txiki, ertain zein handietako ordezkariak elkarrizketatu ditugu. Guztira,



alkate bat, partaidetzako zerbitzu buru bat eta hiru partaidetza-teknikari izan dira elkarrizketatu ditugunak, lau emakume eta gizon bat.

5. **Foroa**, elkarrizketa eta eztabaidarako gunea da. 2019 urtean zehar ez da eztabaida gairik zabaldu.

Asmoa zen baita beste atal berri bat gehitzea, **proiektuen biltegia** sortzea, alegia. Parte hartzen duen udalerrietako esperientzien biltegi bat jasotzea proposatzen genuen, beste teknikarien kontsultarako eta erreferentzia gisa izan dadin antzeko prozesuak abian jartzerako. Lehentasun kontua medio, ez zaio atal honi heldu, eta aurrera begirakoan kontuan hartzekoa litzateke.

Partekatu barne-komunikaziorako tresna eta biltegi soil bat izateaz gain, harremanetarako kanal bihurtzea zen asmoa; teknikariak elkarrekin harremanetzeko eta proiektuarekin lotutako edozein dokumentu hartzeko eskuragarriagoa egitea. Hala ere, ez da lortu plataformarako atxikimendua eta erabilera areagotzea, emailez ere bidali direlako garatu diren saioetako akta, deialdi eta dokumentuak. On-line plataformaren bidez soilik eginda, uste baikenuen, teknikariek ez zutela jaso beharreako jasoko. Beraz, bi kanalak erabili dira, baina emailak izan du arrakasta gehiago. Batzuetan emaila erabili da, baina dokumentuak bertan erantsi gabe, horretarako On line foroan sartzeko esteka soilik bidaliz (dokumentua eskuratzeko, zein izen-emate orria eskuratzeko...). Hala ere, jendeari asko kostatzen zaio bide hau, eta oso erabiltzaile gutxi sartzen da plataforman. Honen diseinuak, gainera, ez du batere laguntzen, ez delako bisualki erakargarria, ez intuitiboa ere.

4.7.1.2. Erakunde arteko Espazioaren posta elektronikoa:

Espazioko posta elektronikoa sortu da: **partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus**.

Asko erabili da bai Elhuyar eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren harremanerako; bai, foro teknikoko egitura ezberdinetan parte hartu duten teknikari eta politikariekiko harremanerako.

4.7.2. Kanpo-komunikazioa:

Kanpo-komunikazioaren alorrean, estrategia legegintzaldi aldaketaren testuinguruan kokatu da, **helburua ordezkari politiko berriengana iristea** izan delarik. Komunikazio-estrategiaren helburu nagusia izan da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren zerbitzu-



karta ezagutaraztetik harago, **Erakunde arteko Espazioaren berri ematea eta Espazioko ekintza eta espazioetara udal gehiago erakartzea.**

Horretarako, bi jarduera burutu dira: bideoa eta udaletara bisitak.

4.7.2.1. Erakunde arteko Espazioaren bideoa:

Bideo bat burutu da Herritarren Partaidetzako Erakunde Arteko Espazioa ezagutzera emateko helburuarekin. Bideoan 11 udaletako ordezkariak hartu dute parte, Gipuzkoako udalerrien aniztasuna islatuz, eta Erakunde Arteko Espazioa zer den eta herri-partaidetzaren garrantzia azpimarratzen dira bertan. Bideo honen aurkezpena ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza-prozesuaren hasierako mintegian egin zen. Asmoa udal guztietara bidalketa egitea bazen ere, azkenean ez da egin. Interesgarria izan daiteke hemendik aurrera pentsatzea bideo hau non eta zertarako erabil daitekeen.

4.7.2.2. Udaletara bisitak:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzaren Zuzendaritzak Gipuzkoako **60 bat udalerrri bisitatu ditu**, herritarren partaidetzaren alorrean eskaintzen diren baliabideak aurkeztu eta Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioa aurkezteko. Bide batez, ordezkari-politiko, zein udal-teknikariak dituzten behar eta erronkak ezagutu eta partekatu dira, elkarlanerako oinarriak sendotuz. Herritarren Partaidetzaren Zuzendaritza oso pozik agertu da egindako bisitez eta jasotako fruituez.



5. Ebaluazioa

5.1 ADIERAZLEAK

2019ko jardueraren jarraipena burutzeko 2017ko ekitaldian Bilgune Teknikoan landutako adierazle-sistema hartu da oinarri. Hurrengoa da emaitza:

ADIERAZLEAK	NEURGAILUAK	NEURGAILUEN EGOERA	ADIERAZLEAK
Udalen parte-hartzea	Bilgune teknikoko asistentzia	% 13	**
	Lan-taldeetan izena emandako udalen ehunekoa	% 7	
	Lan-taldeetako asistentzia	% 86	
	Trebakuntza-prozesuetan izena emandako udalen ehunekoa*	% 42	
	Trebakuntza eskaintzako asistentzia	% 82	
	On-line plataforman erregistratutako udalen ehunekoa	% 40	
Plangintzaren betetze-maila	Aurreikusitako ekintzen betetze-maila	% 92	****
Plangintzako ekintzen kalitatea	Bilgune teknikoko bileren balorazio orokorra	% 77	
	Lantaldearen bileren balorazio orokorra	% 81	
	Trebakuntza ekintzen balorazio orokorra	% 85	
Plangintzaren eraginkortasun-maila	Bilguneetako eraginkortasun-pertzepzioa	% 79	****
	Lantaldeetako eraginkortasun-pertzepzioa	% 80	
	Trebakuntza-prozesuen eraginkortasun-pertzepzioa	% 86	
Lansaioen balioen betetze-maila	Bilguneetako partaidetzarako aukera, giroa eta motibazioa	% 78	***
	Lantaldeetako partaidetzarako aukera, giroa eta motibazioa	% 83	
	Erakunde Arteko Espazioak parte hartzeak sarea egiten eta sinergia berriak sortzen laguntzen du*	% 68	
	Erakunde Arteko Espazioan landutakoak ezagutza berriak dira eta lanerako balio dit*	% 71	
	Udalen asistentzia orokorra. Erantzunkidetasuna	% 45	



Adierazleei erreparatuz gero, hurrengo aipa genezake:

1. Udalen parte hartzeari dagokionez, Erakunde arteko Espazioko egitura ezberdinetan izena emandako udalen ehunekoak hauek izan dira: % 7koa lan-taldeetan, % 42koa trebakuntza-prozesuetan eta % 40koa on-line foroan. Datuei begiratuz gero, parte hartzea erdi mailakoa da. Hala ere, izena eman duten horien asistentzia-datuak altuak dira: % 86.

Lan-taldeetako ehunekoari dagokionez (% 7), aipatzekoa da, aurtan herri txikietako lan-taldeak ez duela bere horretan funtzionatu eta herri txikietako ordezkariekin burututako saioak trebakuntza-prozesuen barne txertatu direla.

2. Plangintzaren betetze-maila % 92koa izan da, aurreikusitako ia guztia eraman delarik aurrera. Burutu ez diren lansaioen kasuan, arrazoi ezberdinak tarteko bertan behera uztea edo atzeratzea erabaki diren saioak izan dira.
3. Bilgune Teknikoko, lan-taldeetako eta trebakuntza-prozesuetako lansaioen balorazio orokorra % 77koa, % 81ekoa eta % 85ekoa da hurrenez hurren, balio altu eta positiboak direlarik.

Trebakuntza-prozesuen kasuan, bitartekaritza eta gatazken lantze etikoari buruzko ikastaroari buruzko balorazio kuantitatiborik ez da jaso, baina balorazio kualitatiboa ez da esperotakoa bezain ona izan, ikastaroaren edukiak partaidetza-teknikarien errealitatera egokitzea falta izan zelako.

4. Plangintzaren, hau da, Bilgune Teknikoaren, lan-taldeen eta trebakuntza-prozesuen eraginkortasun-pertzepzioa altua izan da, % 79 eta % 86 bitarteko balorazioak jaso direlarik.
5. Bilgune Teknikoko eta lan-taldeetako parte-hartzeko aukera edo tarteari, giroari eta motibazioari buruz galdetuz gero, batez besteko % 78 eta % 83ko balorazioa ateratzen da. Kasu honetan, azpimarratzekoa da, giroa nabarmen hobetu dela eta jendea partekatze gogoz azaldu dela.

Lansaioen balioen betetze-mailaren atalean **bi adierazle berri** txertatu dira. Alde batetik, Erakunde arteko Espazioan, bilgune teknikoan zein lan-taldeetan parte hartzeak, sareak egiten eta sinergia berriak sortzen ea laguntzen duen galdetu da, eta batez besteko balorazioa % 68 izan da. Bestetik, galdetu da ea bertan landutakoak ezagutza berriak izan diren eta lanerako baliagarriak ote diren, eta emaitza % 71koa izan da. Beraz, Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren helburuak lortzeko bidean ari garela esan genezake.



6. Azkenik, eta udalen asistentzia orokorrari edo erantzunkidetasunari erreparatuta, Gipuzkoako 40 udalek hartu dute parte Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren barneko proposamenetan.

5.2 BALORAZIO OROKORRA ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Urteko balorazioa abenduko Bilgune Teknikoan zen egitekoa baina asistentzia baxua medio, bertan behera uztea erabaki da. Hortaz, balorazioa e-mail bidez bidaltzeko eskatu zaie udal-ordezkarri tekniko zein politikoei. Guztira balorazio bakarra jaso da emailaz, hortaz, ez dugu Bilgune Teknikoaren urteko jardunaren baloraziorik.

Hala ere, urte bukaeran egin ez den Bilgune Teknikoarekin partekatu den balorazio laburrean jasotzen den bezala, hein handi batean espektatibak bete dira. Izan ere, eta adierazleei erreparatuta, **2018. urtean** Espazioan, gutxienez **behin, 26 udalek** hartu bazuten parte, **2019. urtea** amaitu baino lehen, **40 udalek** hartu dute parte, eta gutxienez, **60 udalek dute Espazioaren berri. Bestalde**, lortu da: udalen parte hartzea handitzea; udal ezberdinen arteko harremanak eta elkarlana hobeto lantzea (bideoa, trebakuntza, etab.); herri txikietara hurbildu eta haien errealitatera egokitzea, bai formatu bai edukiei dagokionez ere; eta, parte hartzaileen artean aniztasun handiagoa bilatzea: tamaina, alderdi eta profil ezberdinetako udal eta pertsonak parte hartu dute. Giroa nabarmen hobetu da eta jendea partekatzeke gogoz azaldu da.

Elhuyarrek, bere aldetik, Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren 2019ko jarduera modu positiboan baloratzen dugu. Prozesuari dagokionez, aurreikusitako urrats guztiak eman dira eta Erakunde arteko Espazioaren baitako egitura guztietan aurreikusitako saioak egin dira, salbuespenak salbuespen. Lanerako oinarri hauek gailendu direla uste dugu: elkarlana, parte-hartzea, sare-ikuspegia eta malgutasuna.

Gure zerbitzuari dagokionez, eta teknikariekin izan ditugun gora beherak kontuan hartuta, uste dugu proiektuari eta eginbearrei erantzun diegula, eta lortu dugula egitasmoa ondo kudeatzea.

Aurrera begira, 2019an egindako lana balioan jarri eta praktikan jartzea dagokigu. Gipuzkoako lurraldean aurrera eramaten diren politika publikoetan partaidetza ardatz izan dadin lortzeko, errealitate desberdinak bizi dituzten udalerrien beharrak hartu beharko dira kontuan, eta beraz, komunikazioaren kanala lantzen eta elikatzen jarraitu beharko da.

Legealdiko erronkak identifikatzeko gogoeta modu konpartituan egitea garrantzitsua izango da. Garrantzitsua izan daiteke profil desberdinak identifikatzea, behar eta aukera desberdinak kontuan hartzea, eta horien arabera espazioak eta egitasmoak definitzea.



5. Ebaluazioa

Aniztasunaren kudeaketari dagokionez, gure iritziz garrantzitsua izango da datorren urtean foro desberdinetako partaideen datuak jasotzeko erregistroa hobetzea, eta saioetara datozen ordezkarien datuetan honako aldagaiak bereizita jasotzea: udalerrria; hautetsi edo teknikaria; emakume, gizon edo ez bitarra, besteak beste. Datuak modu honetan jasotzeak urte amaieran ondorio zehatzagoak ateratzea ahalbidetuko digu, eta ondorioz aurrera begirako helburuak lantzea ere.

Bestalde, lantaldeetan aurrera begira lantzekoak identifikatuta daude. Genero lantaldean mintegia egin gabe gertatu da, eta landutako Check lista praktikan jarri eta ebaluatu egin beharko da, esperimintatu ahala egokitzen joateko. Erabakimenean ere, urratsak eman behar dira, eta praktikan jarri demokrazia zuzeneko baliabideak, eta horietan oinarrituta ikasketak atera, teoriarekin elikatzen jarraituz, baina praktikatik edanez.

Amaitzeko, trebakuntzaren bidean ere urratsak ematen jarraitu beharko da, eta agian, lantzen hasi beharko da, ez bakarrik hautetsiei eta teknikariei zuzendutako trebakuntza eskaintza, baita herritarrei zuzendutakoa ere.